



NIK, JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIOK, HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAREN IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, HAU

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko martxoaren 4ko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez erabakitzen baita EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dokumentuaren izapideekin jarraitzea, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez. (ESP.: 2014/00101) (A/20140035)

Gobernu Kontseiluak, 2010eko urriaren 26an egindako bilkuran, erabakia hartu zuen EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (aurrerantzean, LAG) aldatzeko prozedurari hasiera emateko (otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak onartu zituen gidalerro horiek), eta aldaketa hori ez-funtsezko gisa definitu zuen, 206/2003 Dekretuan aurreikusitakoaren ondorioetarako (206/2003 Dekretua, irailaren 9koa, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duena). Horretarako, kontuan izan zuen indarreko planeamendu-ereduan ez zuela horrek aldaketarik eragingo, alderdi zehatz eta osagarri batzuk besterik ez baitziren aldatuko. Erabaki hori 2010eko abenduaren 3ko EHAA argitaratu zen (233. zenbakia).

Aipatutako 206/2003 Dekretuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz, eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailletako eta beste administrazioetako informazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Lurralde Politikako Aholku Kontseiluak emandako txostenak jaso ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko otsailaren 24ko Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion LAGen aldaketari, gidalerro horiek berraztertu ondoren. Jendaurreko informazioaldian eta entzunaldian zehar, 287 alegazio aurkeztu ziren.

Baina X. legegintzaldi honetako gobernu-programan aurreikusten dena ez da LAGen berrazterketa edo aldaketa ez-funtsezko bat; aitzitik, gidalerro horiek berrikusi nahi dira, eta horretarako beharrezkoak diren izapideak egin. Zalantzarik gabe gobernantza ona eta orain arte egindako lanaren optimizazioa lortu nahi da, eta, horregatik, LAGen berrikuste-prozesuak kontuan izango ditu, batetik, eskuratutako ezagutza, eta, bestetik, LAGen berrazterketaren eta aldaketa ez-funtsezkoaren prozesuan egindako alegazioak (ahalik eta azkarren emango zaio formalki hasiera prozesu horri)

Aurreko hori gorabehera, LAGen berrazterketaren eta aldaketa ez-funtsezkoaren prozesuan, lurralde antolamenduan zeresan handia duen alderdi berezi bat identifikatu da: bizitegi-kuantifikazioa. Alderdi horrek garapen espezifiko aurreratu bat izan du, eta onartu egin daiteke. Horregatik, geroko berrikuspen-prozesu baterako utziko dira 2010eko urrian hasitako prozesuko beste alderdi guztiak (LAGen berrazterketaren eta aldaketa ez-funtsezkoaren prozesua), eta egokitzen da LAGak aldatzeko dokumentuaren izapideekin jarraitzea, bakar-bakarrik, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

Halaber, gobernantza onaren esparruan jarraituz, eta kontuan izanda bizitegi-kuantifikazioarekin lotutako alderdiak garrantzia handia duela, komenigarritzat jotzen da jendaurreko informaziorako eta beste administrazio batzuei kontsulta egiteko beste aldi bat ematea, gobernuak arlo horretako jardunean izan behar duen gardentasunaren mesedetan, bai eta parte-hartzearen bidez arau-testua hobetzeko ere.



Horregatik, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio hori, hark onar dezan, Jaurlaritzari buruzko Legearen 18. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak, proposamena eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

"Lehena.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, baimena ematea EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dokumentuaren izapideekin jarraitzeko, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

Segundo.- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agintzea berriro landu dezala EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dokumentua, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez. Dokumentu horri txostena egin beharko diote Lurralde Politikako Aholku Kontseiluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak; behin aldeko txostena egin ondoren, hasierako onarpena emango zaio, eta, horrekin batera, informazioaldia eta entzunaldia irekiko da."

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Gasteizen, 2014ko martxoaren 11n.